

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Jeanne Doxaran

*Bunuze,
Nafarroa
Beherea (1921)*

Aurkibidea



Biografia



Jeanne Ithuralde Doxaran Bünüzen sortu zen 1921eko apirilaren 30ean, Oztibarren. Ama biziki dendari ona zuen, bere baitarik ikasia. Jeannek, "zertifikata" eskuratu bezain laster (12 urtetan), josten ikasi zuen lehenik serorekin, gero ahaide batekin, eta azkenik amarekin (hobekuntza). Oihal saltzaile batekin ezkondu ondoan, bikoteak saltegi bat erosi zuen Donapaleun. Han ari izan da lanean Jeanne bere bizi guzian. Bi haurren ama da. Gaur egun erretretan izanik ere, segitzen du josten eta tindatzen plazerrarentzat.

Zintak

BUN-002

- **Proiektua:** Euskal kultur erakundearen artxiboak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Maitia, Pantxika
- **Data:** 2008-06-18
- **Iraupena:** 54 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Pasarteak

1. Hautzaroa Bunuzen 1920 hamarkadan

- **Erref:** BUN-002/001
- **Iraupena:** 0:10:05. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:10:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Lanbideak » Sastreak, jostunak

Laburpena:

Jeanne Bunuzen sortua da 1921eko apirilaren 30ean ; 7 haurride ziren. Herriko eskolan ibili da eta ongi oroit da zer ikasten zuten... morala, besteak beste. Hamabi urtetan zertifikata eskuraturik, « ouvroir » batean hasi zen. Serorekin ikasi zuen lisatzen, brodazten eta josten. Handik itzultzean, etxean , aitamen okingedi-epizerian laguntzen zuen.

2. Etxez-etxe ogi saltzen 1940 hamarkadan

- **Erref:** BUN-002/002

- **Iraupena:** 0:06:03. **Hasi:** 00:10:05. **Bukatu:** 00:16:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Jeannen aitak okindegi bat eraiki zuen Bunuzeko plazan. 18 urtetan, Jeanne-k autoko permisa iraganik, etxez-etxe ibiltzen zen 2 kiloko ogiak saltzen. Oroitzapen onak atxikitzen ditu urte bat eta erdiz egin duen lanaz.

3. Bizi guzian dendari.

- **Erref:** BUN-002/003
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 00:16:08. **Bukatu:** 00:19:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Sastreak, jostunak

Laburpena:

Ama dendaria zuen, dendari ona eta adreta. Harekin ikasi ditu josteko erabiltzen diren pundu ezberdinak. Funtsean, nahiz xahartua izan, oraino jende frangok josteak galdegiten dizkiote.

4. Munduko bigarren gerla giroa Oztibarren

- **Erref:** BUN-002/004
- **Iraupena:** 0:12:35. **Hasi:** 00:19:08. **Bukatu:** 00:31:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak
- Politika » II. Mundu Gerra (1939-1945)

Laburpena:

18 urte zituelarik hasi zen gerla. Bunuze gunen libreak zen, Larzabale aldiz eremu okupatua. Ogi etxeetara heltzearekin, gertatzen zitzaion kontrolatua izaita. Hortaz bestalde, jendea lagundu du, gordezka, Maulera heltzen. Epizeriara heldu zen jendeak ez zuen nahi zuenaren erosteko eskubiderik, tiketa batzuren truk egiten zituzten erosketak.

5. Bestak eta musika 1940 hamarkadan

- **Erref:** BUN-002/005
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:31:43. **Bukatu:** 00:33:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kongregazioak
- Aisia » Kultura » Musika
- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:

Jeannen anaiek esku-soinua jotzen ikasi zuten. Etxean egiten ziren ezteiak

animatzen zituzten. Gaztek herriko bestetan parte hartzen zuten, haatik, goizik etxera sartuz. 18-19 urteak arte, « fille de Marie » ziren neskek ez zuten besta egiteko baimenik.

6. Lehen autoa Oztibarren 1930 hamarkadan

- **Erref:** BUN-002/006
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 00:33:19. **Bukatu:** 00:35:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak

Laburpena:

Oztibarreko lehen autoa 1930 inguruan agertu zen Bunuzen. Biradera itzulikatuz abiatzen zen eta erabilpena biziki zaila zen neska batentzat.

7. Oihal saltzaile eta dendari Donapaleun (1940ko hamarkadatik goiti)

- **Erref:** BUN-002/007
- **Iraupena:** 0:09:28. **Hasi:** 00:35:03. **Bukatu:** 00:44:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Sastreak, jostunak

Laburpena:

Jeanne, Pierre Doxaran oihal saltzailearekin esposatu zen 21 urtetan. Kuplea Donapaleun plantatu zen. Senarra etxez-etxe ibiltzen zen oihala saltzen eta egin behar ziren jantzientzat neurriak hartzen. Jeannek aldiz, beste dendari batzuen laguntzarekin, jantziak edo behi estalgiak prestatzen zituen. Ordu haietan, dendariak gehien egiten zituzten jostak : flanelak, atorrak, kaltxoinak, behi estalgiak. Hauetaz bestalde ere espos arropak egiten zituzten eta esposanderearen beztitzera joaiten etxeetara.

8. Jantzi modaren segitzea

- **Erref:** BUN-002/008
- **Iraupena:** 0:04:22. **Hasi:** 00:44:31. **Bukatu:** 00:48:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Sastreak, jostunak

Laburpena:

Jantzi ederren egiteko liburuetan hartzen zituzten modeloak. Pariseko saloin batzuetan ere ibiltzen ziren ideiak hartzeko eta moda segitzeko. Behin, Parisen zelarik Donapaleura heldu zen oihal saltzaile bat topatu zuen. Judu honek erakutzi zion bere lantegia, lurpean gordea.

9. Jantzeko prestak

- **Erref:** BUN-002/009
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 00:48:53. **Bukatu:** 00:50:25

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Sastreak, jostunak

Laburpena:

1960 hamarkadan, hasi ziren prest-prestak ziren jantzien saltzen. Dendariaren lana doi bat aldatu zen. Arropen egiteaz bestalde, laburtzen edo petatxatzen gehiago lan zuten.

10. Amikuzeko dendari baten denbora pasak

- **Erref:** BUN-002/010
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:50:25. **Bukatu:** 00:52:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Beste adierazbide batzuk
- Lanbideak » Sastreak, jostunak

Laburpena:

Igandetan, josteak utzirik, tindatzen aritzen da ; tindatzeak edo eskulanak gustukoak ditu. Erakusketa batzuetan ere parte hartu du.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-06-10

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com